



Ibilbide berdeen sarea



Red de itinerarios verdes

LAGUARDIAKO TURISMO BULEGOA/
OFICINA DE TURISMO DE LAGUARDIA

www.laguardia-alava.com

☎ 945 60 08 45

turismo@laguardia-alava.com



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



NATURA 2000



Ramsar



CUADRILLA DE LAGUARDIA
RIOJA ALAVESA
LAGUARDIA-ARABAKO ERRIOXAK
CUADRILLA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Laguardiako Aintziraguneko ibilbide berdea

Ruta verde del complejo lagunar de Laguardia

LAGUARDIAKO AINTZIRAK

Biotopo Babestu hau ehunka hegazti espezierentzako atsedenleku bilakatu da, irailetik martxora bitartean batez ere. Lertxun hauskara, murgil handia edo zingira mirotza dira urte osoan zehar bertan bizi diren espezieetako batzuk, eta amiltxori arrunta, lertxun gorria edo argi oilarra bezalako hegaztiak familia erraldoi honetara uda igarotzera hurbiltzen dira. Lezkadiak ere biziz josita daude, lurrian metatutako gatz eta mineralei nahiz ur hauen ezaugarri bereziei esker bizi diren alga berezi batzuekin batera basahateak, kopetazuriak eta txilinportak ugaltzen dira bertan.

Inguru honek hegaztiak ikusteko erraztasunak ditu. El Prao de la Paul urmalenean behatoki eta talaia bana aurkituko dituzu.

LAGUNAS DE LAGUARDIA

Este Biotopo protegido se ha convertido en lugar de descanso para cientos de especies diferentes de aves, en especial durante el periodo de septiembre a marzo. La garza real, el somormujo lavanco o el aguilucho lagunero son especies residentes del conjunto lagunar, familias a las que se suman en época estival el martinete común, la garza imperial o la abubilla, entre otros. En sus carrizales se reproducen azulones, fochas y zampullines que comparten hábitat con especies únicas de algas, que proliferan gracias a las sales y minerales acumulados en el suelo y a las características especiales de estas aguas.

El conjunto ofrece facilidades para la observación de aves. En la balsa El Prao de la Paúl encontrarás un observatorio y una atalaya.

EZ EZAZU GALDU...

Laguardian:

Hiribildu honek egoera bikainean mantentzen ditu Erdi Aroko harresia eta kale eta eraikinen sarea eta iraganera bidaiatzeko aukera paregabea eskaintzen digu... Erregeen Andra Mariaren eliza, Barbacana zeltiberiar urmaela, Abat dorrea edota lur azpian dauden bodegak bisitatu ahal dituzu edo La Hoyara hurbildu zaitezke, Burdin Aroko herrixkara ezagutuz.

Arabar Errioxan:

Mahasti eta olibondoz inguratuta, Bastida, Kripan, Bilar, Villabuena eta Zieko herrien edertasunak eta bere horretan mantendu dituzten oinetxeek harrituko gaituzte. Merezi du ere Erdi Aroko Labraza hiribildu zoragarria bisitatzeko geldialdi bat egitea. Ardoaren kulturak eta arkitektura paregabeak bat egiten dute mahastien artean han hemen agertzen diren eraikin deigarrietan, Santiago Calatrava eta Frank Gehry bezalako artista ospetsuen sinadurak dituztenak.



NO DEJES DE VISITAR...



En Laguardia:

La villa conserva en muy buen estado su muralla medieval y un entramado de calles y edificaciones que te llevarán al pasado.... Puedes visitar la Iglesia de Santa María de los Reyes, el Estanque celtibérico de la Barbacana, la Torre Abacial e incluso alguna de las bodegas que se encuentran en el subsuelo de la villa o acercarte a La Hoya, un poblado de la Edad del Hierro.

En la Rioja Alavesa:

Bañadas por viñedos y olivares, Labastida, Kripán, Elvillar, Villabuena y Elciego sorprenden por su belleza y por conservar intactas casas solariegas. La espectacular villa medieval de Labraza merece también un alto en el camino. Como contraste, destacan las nuevas construcciones ligadas al mundo vitivinícola, que aúnan cultura del vino con arquitectura espectacular, con las firmas de Santiago Calatrava y Frank Gehry como principales garantes de prestigio.





2h '30 1h aprox. 11,4 km 98 m

km 0

Ibilbidea Laguardiako alde zaharra eta kanpoaldea lotzen dituen igogailuan hasten da eta GR 120 eta GR 38 ibilbideekin batera Prao de la Paul urmaelerantz jaisten da, mahastien artean doan bidetik.
El itinerario comienza junto al ascensor que une el casco antiguo de Laguardia con la zona deportiva y se adentra en el viñedo en dirección al embalse de Prao de la Paul, junto a los recorridos GR 120 y GR 38.

Urmaelera heldu baino lehen ezkerretara doan bidea hartuko dugu, txabola bat gure eskumara utziz. Urmaela eskumako aldetik inguratzen hasiko gara.
Toma un camino que se dirige a la izquierda antes de llegar a la laguna, dejando una chabola a la derecha. Una vez en la laguna, continúa por la derecha.

km 1,4

Zuzen jarraitu A-124 errepidera heldu arte. Ibilbidea laburtu nahi duenak GR 120.2 saihesbidearekin batera ezkerretik jarraitu eta aintzira inguratzeko aukera dauka.
Sigue recto hasta llegar a la carretera A-124. Se puede acortar el itinerario continuando por la izquierda junto a la variante GR 120.2 rodeando el embalse.

km 2

KONTUZ errepidea gurutzatzerakoan!
¡ATENCIÓN al cruzar la carretera!

km 2,7

Asfaltozko bidean aurrera egin Carravalsecako urmaelera heldu arte. Ibilbidea laburtu nahi duenak, ezkerretara doan bidea har dezake, Carral로그roñioko urmaela inguratzen duena.
Continúa por el camino asfaltado hasta llegar a la laguna Carravalseca. Se puede acortar el recorrido tomando el camino de la izquierda rodeando la laguna de Carral로그roño.

km 4,6

Har ezazu ezkerreko bidea, Carravalsecako urmaela eta GRa atzean utziz. Hemendik aurrera iparralderantz jarraitu.
Toma el camino de la izquierda dejando atrás la laguna de Carravalseca y el GR. A partir de aquí sigue en dirección norte.

km 7,2

KONTUZ errepidea gurutzatzerakoan!
¡ATENCIÓN al cruzar la carretera!

km 9,4

GR 120.2ak Bilarrerantza jarraitzen duen arren, aintzira inguratzen duen bidetik jarraituko dugu.
A pesar de que el GR 120.2 se dirige a El Villar, continúa por el camino que rodea la laguna.

km 10,7

Behin aintzira inguratuta, etorritako bidetik bueltatzea baino ez da geratzen ibilbide zirkularra bukatzeko.
Una vez rodeada la laguna, sólo queda regresar por el camino que hemos comenzado para finalizar el recorrido circular.

Laguardiako Aintziraguneko ibilbide berdea

Carral로그roño, Carravalseca eta Muscoko urmaelek eta El Prao de la Paul urtegiak osatzen dute Laguardiako aintziragunea. Hau Ramsar zerrendan agertzen da, munduko hezegunerik garrantzitsuenen artean, bai eta Europako Natura 2000 Sare Ekologikoan. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoak babestutako biotopoa da. Laguardiako hiribildu monumentala hezegune hauetatik hurbil dagoenez eta aberastasun etnografiko, gastronomiko eta kultural handiko inguru pribilegiatuan kokatzen denez, ibilbide honek osagai guztiak ditu mahasti artean egun eder batez gozatzeko.

Aintzira bakoitza bere aldetik bisitatu dezakezu. Hala ere, 11,5 kilometroko ibilbide honi esker, aintziragune osoa ezagutzeko aukera eskaintzen dizugu, Loiolako San Ignaziok egindako bideari, Ignazionar bideari, jarraituz (GR 120) edota Ardoaren eta Arrainaren ibilbideari (GR 38) eginez. Azken hau, Arabar Errioxaren eta Bizkaiko itsas portu nagusien arteko merkataritza bidea izan zen aitzinean.

Ruta verde del Complejo Lagunar de Laguardia

Las lagunas de Carral로그roño, Carravalseca, Musco y la balsa de El Prao de la Paul conforman el Complejo Lagunar de Laguardia, incluido en la lista Ramsar entre los humedales más importantes del mundo, en la Red Ecológica Europea Natura 2000, y son además biotopo protegido por la Comunidad Autónoma Vasca. La proximidad de estos humedales a la villa monumental de Laguardia y su privilegiada ubicación en un entorno de gran riqueza etnográfica, gastronómica y cultural, confieren a esta ruta los ingredientes necesarios para disfrutar de una jornada completa... entre viñedos.

Aunque puedes conocer cada laguna por separado, a través de este itinerario de 11,5 kilómetros te proponemos visitar todo el complejo lagunar siguiendo los pasos de San Ignacio de Loyola en el Camino Ignaciano (GR-120) y la Ruta del Vino y el Pescado (GR-38), antiguo camino de comercio entre la Rioja Alavesa y los principales puertos de la costa de Bizkaia.

EZ AHAZTU:

LAGUARDIAKO AINTZIRAGUNEA
oso eremu sentikorra da; errespetatu zure inguruan dagoen flora eta fauna eta ingurunea mantentzen lagunduko duzu.

NO OLVIDES:

EL COMPLEJO LAGUNAR DE LAGUARDIA
es un espacio muy sensible; respeta la flora y fauna que te rodea y ayudarás a conservar el entorno.

